



2018-09-14 / 577. ZENBAKIA / 14. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Hogeita bost urte ETAk Villafañe hil zuenetik



1993ko irailaren 16an, Andoaingo Makaldegian utzita zuen autoaren azpian bonba lapa jarri zioten. 77 urtekoa, Guardia Zibil ohia zen. / 2-3

## Iantzi kasua: Urteak joan dira, mina ez



1993ko irailaren 24an hil zen, inkomunikazio egoeran zegoela. Atxilotzeko agindurik gabe eraman zuten Urnietatik, hilda itzultzeko / 4-5



## Merezitako omenaldia Joxean Huizi Ulangari

Euskaldunako lehen taldearen aurkezpen ekitaldian, futbolzaleen eta andoaindarraren berotasuna jaso zuten Huiziren etxekoek. / 13

**Kultur ekitaldiz  
beteriko uda amaiera  
eta udazken hasiera  
iragarri dute  
Andoainen** / 15

**Ikastaro eskaintza  
zabala Lekaion,  
Saroben eta Udal  
kiroldegian. Izen-  
ematea zabalik dago** / 7

**Buruntza nagusi auzo  
arteko herri-kirol  
desafioan, Bekoplazan  
hasi eta Sorabillan  
amaitu dena** / 8-9

- Denbora gutxi al daukazu euskaltegira etortzeko?  
Lasai! **Astean 2 eguneko modulua ere badaukagu!**
- Baita bestelakoak ere:  
**Astean 4 egun eta autoikaskuntza**

**Diru-laguntzak  
dituzu euskara  
ikasteko.  
Galdetu zure  
Udalean!**



# Autoan bonba jarrita hil zuten Juvenal Villafañe, 77 urte zituela



Juvenal Villafañe Garcia. AIURRI

Irailaren 16an, igande honetan, ETak Juvenal Villafañe Garcia Guardia Zibil ohia hil zuela 25 urte beteko dira. 77 urte zituen, eta urteak ziren Guardia Zibila izateari utzi ziola. Adin horrekin atentatua pairatu duen bakarrenetakoa da ETaren historian

**Xabier Lasa, J.Ander Ubeda** ANDOAIN  
Igande honetan hilketa hartaz 25 urte beteko dira. Blanca bere alabak, bizirik dauka aitaren oroimena: “Aita onbera, jantzia

eta hiztuna” zela nabarmendu ohi du hari buruz galdetutakoan. Denbora tarte honetan ama eta bi ahizpak hil zaizkio, eta Eskola kalean bizi zen familia hartatik

Blanca alaba eta Ermuan bizi den iloba Oscar bakarrik bizi dira. Blanca Villafañek ez du nabarmentzeko gogo berezirik, ez du aitak jendaurrerako zuen

dohain hori garatu. Bizitza apala darama Andoainean, eta biktima izaera diskrezioz darama. Elkarbizik urtero azaroaren 10ean, biktimen nazioarteko egunean,

antolatzen duen ekitaldian parte hartu ohi du. Babestuta sentitzen da Mikel Arregik eta Elkarbiziko kideek antolatzen duten omenaldi ekitaldian.

## Errepublikar familian jaiotako Guardia Zibila

Juvenal Villafañe Garcia Leongo probintzian dagoen Mansilla de las Mulas herrian jaio zen, 1915eko irailaren 26an.

1936ko Gerra soldaduska egiten ari zela egokitu zitzaion, eta altxatutako bandoarekin aritu zen. Hots, Francoren aldekoekin. Gerra bukatuta, ejerzitoko kapitain batek Guardia Zibila izateko proposamena luzatu zion. Etxean eman zuen jasotako

proposamenaren berri, baina bere aitak ezetz erantzun zion, bere familia errepublikarra zela eta ez zutela ondo ikusiko.

Leongo herri hartan Francoren aldekoek izua zabaldu zuten, gerra hasieratik. Berriki Olga Rodriguez Espainiako kazetari ezagunak hori berretsi du, bere birraitonaren historia kontatuz. Oihartzun zabala izan du sare sozialetan. Herri hartan gerrarik

ez zela izan eta zerrenda beltzen arabera hilketak agindu zituztela salatu du. Mansilla de las Mulasen, zehazki, 1936an herriko sei gizonezko eta emakumezko bat euren etxebizitzetatik atera eta fusilatu egin zituzten.

Juvenal Villafañek, ordea, soldaduska amaituta, gerra osteko panorama tristea eta iluna topatu zuen sorterrian. Miseria besterik

ez eta azkenerako Guardia Zibil lanetan hastea erabaki zuen.

Cantabriako Castro Urdiales herrian ekin zion lanari, eta makien atzetik ibiltzea egokitu zitzaion. Han ezagutu zuen Blanca Campo, gerora bere emaztea izango zena. Hiru alaba izan zituzten elkarrekin: Mari Carmen, Maria Angeles eta Blanca.

Gaur egun, 25 urte geroago, familia hartatik Blanca alaba eta haren iloba Oscar bizi dira.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



Blanca Villafañe, lore sorta eskuan, Mari Paz Artolazabalen ondoan duela, Elkarbizik urtero azaroaren 10ean antolatatu ohi duen Memoriaren egunean. AIURRI

Normala den bezala, aita galdu zuen eguna –1993ko irailaren 16a– sekula ahaztuko ez duen eguna izango da. Blanca ama eta ahizpak atentatuaren lekura hurbiltzen saiatu ziren, etxe azpian gertatu baitzen atentatua. Baina Ertzaintzak eta Gurutze Gorriak gehiegi hurbiltzea eragotzi zieten, Juvenalek zauri oso larriak zituelako. Blanca alaba une horietan Castro Urdialesetik zetorren autobusean. Ezustea izan zuen Donostiako geltokira iristean, bizilagun bat zain zuelako. Albiste argirik ez zioten eman, baina ez zen ona inondik inora. Lehenik Andoainera abiatu ziren, eta hortik ospitalera. Hara iristean dagoneko hilik aurkitu zuen aita.

#### **Sargento ezizenez, oso ezaguna zen Andoainen**

Juvenal Villafañe *Sargento* ezizenez ezaguna zen Andoainen. Ehiztari, arrantzale edota pasaporte berritu behar zuen edonorentzat aholkulari modukoa. Guardia Zibila izateari utzi zionean, herrikide askori lagundu zion burokrazia ofizialari lotutako agiritzia lortzen. Armak izateko lizentzia eduki behar zen halabeharrez, eta Andoainen bazegoen jende ugari tramite hori egin gabe zegoena, arrazoi ezberdinengatik: utzikeria, ezjakintasuna, eza gutza eza,... Villafañe erreferentzia zen herritar eta base-ritar askorentzat. Adinean gora, egun gutxira 78 urte bete behar zituenean, ETAK bonba lapaz hil zuen.

Leongo Mansilla de las Mulasen jaio zen, familia errepu-

blikar batean. Gerrak soldaduska egiten harrapatu zuen eta orduan luzatu zioten Guardia Zibilean sartzeko eskaintza. Gerra bukatuta, jaioterrira itzultita, panorama tristea topatu zuen: Gosea, miseria, lanik eza..., Guardia Zibila sartzea beste erremediorik ez omen zuen ikusi. Bere aitak halabeharrez onartu behar izan zuen Juvenal semearen erabakia. Errepublikarra zen, eta tarteka zera adierazten omen zuen etxean: "Lanik ez zegoelako gerra ostean, gainerakoan, semeari ez nion inondik ere Guardia Zibila izaten utziko!".

Juvenalek bere lan ibilbide osoa Guardia Zibilean egin zuen. Castro Urdialesera bidali zuten lehenbizi, eta gerora emaztea izango zena han ezagutu zuen. Hiru alabak bertan jaio ziren: Mari Carmen, Maria Angeles eta Blanca.

#### **Erretiroa hartuta, Andoainen bizitzen jarraitzea erabaki zuen**

Villafañe-Campo familia 1960ko hamarkadaren hasieran iritsi zen Andoainera. Kale Nagusiko etxe batean jarri ziren bizitzen, eskola publikoko irakasleekin batera.

Jubilazioa iritsita ere, Juvenal Villafañek eta familiak ez zuten Andoain utzi. Bertan bizitzen jarraitzea erabaki zuten.

Bizitzaren azken hondarretan, ETAK bere aurka ekitea erabaki zuen. Atentatuarekin harrituta, hiltzen ari zen bitartean atentatua izan ote zen galdetzen zien laguntza ematera hurbildu zitzaizkion. 78 urte betetzera zihonan, egun haietan.



Gurutze Gorriko kideak, tartean Pedro Unanue, eta Joseba Pagazaurtundua Juvenal Villafañe artatzen ari zirenean. ABC

## "Atentatua izan al da?", Villafañek errepikatzen zuen galdera hiltzear zegoela

Ostegun hartan bizitokia zuen Eskola kaletik oso gertu utzita zuen ibilgailua, Makaldegiko aparkalekuan. Renault 11 zen, SS4653W matrikuladuna. Tokiz aldatu nahi zuela eta, autoan sartu eta azpikaldean itsatsita zuen bonba lapak berehala eztanda egin zuen. Zartadak ibilgailua lehertu zuen, eta baita ondoko merkatalguneko eta inguruko kristalak apurtu ere. Zer esanik ez dago Juvenal Villafañeren gorpua txikituta geratu zela. Gerritik behera zauri oso larriak zituen. Eztandarekin arropa hautsita zuen, gorputz atal gehienak biluzik utzirik.

Atentatua bortitza izanagatik ere, Villafañe ez zen berehala hil. Eta ez zuen une gogor haietan konortea galdu. Bi herritar hurbildu zitzaizkion lehenik, bi anai zehazki. Ibilgailutik atera eta lurra eduki zuten, Gurutze Gorria iritsi zen arte. Minutu gutxiko tartea izan zen, eta ondo gogoan dute bizirik atera zutela. Berehala jabetu ziren nor zen zauritua, herrian oso ezaguna zelako. Lehen arreta eskainita, bizitako une horiekin erabat hunkituta alde egin zuten. "Atentatua izan al da?" galdetzen zien Juvenal Villafañek lehen

laguntza ematera hurbildu zitzaizkion. Andoaindarrek ondotox dakitenez, Gurutze Gorriko etxola Makaldegian bertan dago, Eskola kaletik 200 metro eskasera, N-1 errepide aldera. Bertan ziren Gurutze Gorriko kideek ez zuten inoren deirik jaso behar izan, eztanda entzun eta gertaeraz berehala jabetu baitziren. Lehen une horietan, argazkiari erreparatuta, arduradun lanetan agertzen den Gurutze Gorriko kidea Pedro Unanue da. Ondo oroitzen du 1993ko gertaera hura, esku-hartze zaila izan baitzuten. Aidanean Villafañe bizirik zen, eta hil ala biziko egoeran sartu zuten ambulanzian, ospitalerako bidean. Pedro Unanue urte luzez Gurutze Gorriko kide izan da, eta egun EH Bilduko zinegotzia da udaletxean.

Argazkian bada aipatzea merezi duen beste pertsona bat, andoaindarra izanez gero atentzioa deitzen duena. Pedro

#### **VILLAFÑEREN GORPUA TXIKITUTA ZEGOEN ARREN, EZ ZUEN KONORTEA GALDU**

#### **ANDOAINDIK OSPITALERA ANBULANTZIAN ABIATU ZEN, BIZIRIK. GUTXIRA HIL ZEN**

Unanueren parean, argazkian bizkarrez agertzen dena, Joseba Pagazaurtundua Ruiz izan zitekeen?

Aiurrik aurreko asteetan herrikide ezberdinen artean kontsulta egin zuen eta gehienek ia ziurtasun osoz zioten argazkikoa *Pagaza* zela. Udaltzaina zen Andoainen, eta zuen lanbideagatik logikoa dirudi atentatuaren tokiraino hurbildu izana. Gurutze Gorriko kideekin batera, argazkian Villafañeren egoera larria onbideratzeko ahalegin betean ikusten zaio. Ezaguna denez, 2003an Agustín Leitzua kalean dagoen Daytona tabernan ETAK buruan tiro eginez hil zuen Joseba Pagazaurtundua. Zehazki, Juvenal Villafañeren aurkako atentatua gertatu eta hamar urtera.

Joseba Pagazaurtunduaren arreba Maiteri argazkia erakutsita, bere anaia dela dio ziurtasun osoz: "Joseba da. Egun hartan loreak erosi zituen eta, berak deituta, lehen aldiz lagun gutxi batzuk bildu ginen Andoainen, atentatua gertatu zen lekuan bertan. Ez dut sekula ere ahaztu bakartasun eta tristezia hura, eta anaiaren indarra lore sorta eskuan".

# Gurutze Iantzi Igerategi kasua: Urteak joan dira, mina ez

**JOSEAN, AGUSTIN ETA IZASKUN GURUTZE IANTZIREN ANAI-ARREBAK**

Irailaren 24an beteko dira 25 urte Gurutze Iantzi Igerategi inkomunikazio egoeran atxilotuta Madrilen hil zenetik. Senitartekoek minez bizi dute iraganeko ezbehar hura



Gurutze Iantzi Igerategi urnietarra. AIZPURUA

**Andoni Urbistondo URNIETA**

Irailaren 24a. Goizeko 08:00ak. 1993. urtea. 25 urte joan dira. Mende laurdeneko amesgaiztoa, iluntasuna. Eta samina. Egunak, asteak, urteak pasata ere, desagertzen ez den mina. Gurutze Iantzi atxiloteta agindurik gabe eraman zuen etxetik Guardia Zibilak, eta 28 orduko epean, telegrama baten bitartez, ziegan hil zela jakinarazi zioten sendiari. Heriotza naturala izan zela dio bertsio ofizialak, baina torturak jasan zituela frogatzen dute Gurutzerekin batera ziegan egon ziren beste atxilotuen lekukotzek. Justiziaren zain dago familia oraindik, esperantza handirik gabe. “Etotzen dena berandu etorriko da. Kontxi gure ama 21 urte egon zen zain, hil zen arte”.

Heriotza kontuetan murgiltzea beti da zaila. Gizakiak zerbait gairiditu ez badu heriotzarekin zerikusia duten zehar-kalteak dira. Gai horretan sakontzea beti da konplexua, eta heriotza bidegabea bada, are gehiago. Iantzi sendia Errementari kalean bizi zen 25 urte atzera: Kontxi ama, Gurutze eta Julen Irastorza bikotea, eta Izaskun alabak. Josean eta Agustín bi seme zaharrenak kabitik ihes eginda zeuden ordurako. Izaskun da gazteena lau anai-arrebatan.

Grabagailua martxan, kontakizuna gordin-gordin hasi du Izaskunek: “Astelehen gauean

hasi zen dena (irailak 20). Oheratu eta bi minutura kolpeak entzun genituen amak eta biok. Guardia Zibila zen, bere legean: “*¡abran la puerta, la vamos a tirar!*” eta beste. Ama atera zuten atarira, gero ni, ondoren Gurutze. Sartu arazi gintuzten barrura, lekukotza emateko. Julenen atxiloteta agindua zeukaten. Eraman zuten, eta Gurutze oso urduri zegoen. Goizean Antonio lehenagusua ere atxilotu zutela jakin genuen (Antonio Igerategi), eta genekien gauza bakarra zen *‘la operación sigue abierta’*, horrek esan nahi duen guztiarekin”. Gurutzek biharamuneko gaua Josean anaiaren etxean pasa zuen, beldurrak jota. Ezer ez zela pasa ikusita, bueltatu egin zen etxera, baina hurrengo eguneko gauean bere bila etorri ziren: “Argi eta garbi esan ziguten zertara zetozen: *‘Venimos a por Gurutze’*”, dio Izaskunek.

“Gogoan dut Gurutzek etengabe esaten zidala ‘nik ez dut ezer egin’, urduritasunak jota. Saiatu nintzen lasaitzen. Epailearen agindua eskatu nien Guardia Zibilei, eta barrez erantzun zidaten, ez zeukatela, argibide gehiago nahi banituen Gobernu Zibilera deitzeko. Argi utzi ziguten *‘nos la vamos a llevar, por las buenas o por las malas’*. Ez nuen nahi Gurutze eramatea, baina ezin duzu ezer egin”. Oraindik orain mina ematen dion

arantzatxoa badu, Izaskunek, barru-barruraino sartuta: “Askotan pentsatu izan dut, beste zerbait egiten saiatu izan banintz, ez zutela eramango...”.

Garai haietan sakelakorik ez zegoen, eta etxeko telefono finkoa ere blokeatu egin zuten. “Hurrengo goizean abisatu genien bi anaiei. Beldur batean geunden, ikusirik Julen eta Gurutze eraman zituztela. Lagun bati esan nion etxera lotara etortzeko, batez ere ama bakarrik ez uzteko, ni eramaten baninduten”. Eta eguna argitu bezain pronto, inoiz espero ez duzun notizia: “Amaren oihuekin esnatu nintzen goizeko 08:00ak aldera”. Telegrama bat ekarri zioten, Gurutze hil egin zela zioena. Etxetik eraman eta 26-28 ordu. “Segituan Madrildik deitu zigun, funtzionario batek, eta telegraman jartzen zuena berretsi. Nik *‘que le habéis hecho, que le habéis hecho’* esanez eskegi nuen telefonoa”. Joseani kamioiko irratiz abisatu zioten lankideek, eta Agustini telefonoz. “Ez genekien nola kudeatu egoera, zer egin, zer ez... Lagunei deitu genien, ea Juankar Alberdiren nola egin zuten, Gestorasera deitu genuen eta hor hasi ginen pausoak ematen”, zehaztu du Joseanek.

Agustinek halako zulo beltz bat dauka, egun haietaz galde-tuta, baina pasarte bat ez zaio ahaztu: “Tirabira serioak izan

nituen etxera etorri ziren hainbatekin: Jose Inazio apaiza zena, lazo urdinarekin (Julio Iglesias Zamora enpresaria bahitua zeukan orduan ETak), Joxi Lizeaga alkatea zena..., amarekin ere borrokan aritu nintzen, hark ez zuelako nahi nik esan nizkienak esatea etxera etorri zirenei!”. Garbi dio: “Niretzat arreba erail zuten, eta han gertatu zena ez da bukatu oraindik. Ez da bukatu, heriotza eta gero hilabete luzez etxean deiak jaso genituelako egunero gau ilunean, erantzunik gabekoak”.

## Madrilgo trantzea

Joseanek Madrilgo bidaiaren kontuak ekarri ditu solasaldira: “Pentsa, nola geratzen zaren... Madrilerara joan aurretik mediku forentse bat emateko esan zigu-

ten, baina ez zaude mediku bat bilatzeko pentsamenduarekin... momentuko shock egoera ikaragarria da. Izaskun eta biak Madrilen ginen, eta Tres Cantoseko epailearengana joan ginen. Tantoriora eraman gintuzten, Gurutze identifikatza. Julen ere han zegoen, gurekin. Ezin izan nion eutsi, ez nion gorputza begiratu. Kazetari asko zeuden, HBko Mahai Nazionala Espainiako Kongresuan zegoelako”.

Mirandan, Gasteizen eta Ordizian jendea ikusi zuten auto ilararen zain, ikurrinekin eta oihuka, “baina gu blokeatuta geunden. Salesiar ikastetxeko aldapara iritsi ginen, eta han jendetza zegoen zain. Zer egin aztertu genuen, eta hilotza udalxera eramatea erabaki zuten herritarrek”. Udalak ez zuen baimenik eman nahi hilotza barrura sartzeko, eta atea bota zuten. Han egon zen zerraldoa hileta elizkizunera arte. “Kontxi ama ez zen Gurutzeren gorputza ikustera joan, ezta elizkizunera ere. Ez zuen hilik ikusi nahi alaba”, dio Izaskunek.

Gurutzek idatzia omen zeukan, hiltzean, bere gorpua erraustea nahi zuela, baina familiak, trantze hartan, pentsatu zuen akaso hilotz hark erakutsi zezakeela egunen batean torturen eraginez hil zela. Joseanek honela kontatzen du Madrilgo trantze gogor hura: “Une hartan burura etorri

## Urteurrena

**Irailak 20, osteguna Hitzaldia**

19:30. Lekaio. Eukén Garmendia, Joxe Fermin Argiñarena eta Izaskun Iantzi.

**Irailak 24, astelehena Ekitaldia**

Gurutze Iantziaren heriotzaren 25. urteurreneko ekitaldia.



Agustin eta Josean Iantzi anaiak ezkerrean. Eskuin aldean Izaskun Iantzi Andoni Urbistondorekin batera. AIURRI

zitzaigun azken kontua izan zen erraustearena". Elizkizuneko atarikoak oso gogorak izan ziren sendiarentzat... Udaletxean eta plazan jende mordo zegoen, eta hilotza zegoen gelan ere bai. "Guk apenas eduki genuen tarterik Gurutzeren hilotzarekin bakarrik egoteko, eta jendeari minutu batzuetan bakarrik uzteko eskaera egin genion. Jendeak gorpua hartu zuen, eta elizkizuna bukatuta, Xabier Kalparsoro *Anuk* zena ere hil egin zutela zabaldu zen. Jendea berotu egin zen, egunkarien aurka oihuak botatzen hasi... eta familiako kideok erabat gaindituta ikusi ginen egoera horretan".

#### Ahantzuraren hasiera...

Elizkizuna bukatu zen, eta iraganaren zulo beltza sakontzen hasi. "Hurrengo egunean bukatu zen kontua. Bakarrik geratu ginen", dio Agustinek, haserre. "Joseani Mercedes Milak telebistan hitz egiteko gonbitea egin zion. Ez zen joan, noski. Egunkarietako kazetariek deitu zuten etxera, baina ez genuen adierazpenik egin nahi izan, eta 25 urte geroago, agian, bestela egin behar ote genuen pentsatzen duzu".

Herritarren erantzunaz, hauxe, Joseanek: "Amak esaten zuen, erdaldun jendeak ikaragarri babestu eta lagundu zuela, Gurutze hil eta gero. Aintzat hartu behar zen gure auzoan, Errementari

kalean, erdaldunak nagusi zirela! Ezker abertzaleko jendea ere bai..." Pixkanaka gaia ahazten joan zen jendartearen, baina familiar ez: "Gurean ez, zauriak ez direlako ixten. Oraindik orain Gurutze Iantzi ez da Polizia Indarkeriaren biktima bat, ez dagoelako froga judizialik. Tortura zantzuak agerikoak izan ziren: beste atxilotuen lekukotzak, agiri judizialik gabe atxilotu izana, mediku forentsea mucorex botika ematera mugatzea, ziegaraino bertaratu gabe, bularrean min handia zeukala aitortuta ere..."

#### ...memoriaren berreskuratzea

Itzali zen kontua, ordea, piztu egin zen, hamarkada bat atzera. Egiari Zor kolektiboa sortu zen. Kasuistika zabaldu duten kasuak aztertzen ditu: torturak, polizia kontrolak, atxilotetak... "Ni talde horretako kide egin nintzen", dio Izaskunek, "eta urteen joan-etorrian gauzak aldatzen hasi dira. Hasieran gertatu zitzaigun ezin zen garbi hitz egin, orain bagoaz pixkanaka nahi duguna esateko libre izaten. Zer eta nola esaten duzun, kontuz jokatu behar da oraindik, agian kartzelara eramaten zaituztelako. Guk ezin dugu askatasunez esan Gurutzeri gertatu zitzaiona. Gutako edo nork publikoki Gurutze Iantzi poliziak torturatuta hil zuela ezin dugu esan, nahiz eta garbi daukagun zer gertatu zen..."

hausnartu du Gurutze zenaren ahizpak.

Etorkizunaz mintzo, iritsiko al da momentua, non aitortza publikoa etorriko den? "Hemen-dik 100 urtera igual, elizak bezala...", bota du, ironiaz, Agustinek. "Niretzat ez luke ezertarako balio aitortza horrek gaur egun. Hori amari esan behar zioten, bizi zenean, eta ez zen inor joan, ez publikoki ezta pribatuan ere. Gure ama Kontxi Gurutze hil zenean hasi zen hiltzen, pixkanaka...". Agustinek noizbait zer edo zer etorriko dela uste du, "baina ordurako igual Aitor iloba bakarrik gertatu da Iantzi abizenarekin, eta esango diote: 'zure izebaren kasuan ez genuen ondo jokatu'. Eta?"

Josean eta Izaskun anai-arrebentzat, ordea, baliagarria izan-go litzateke aitortza hori: "Jendartearen zer gertatu zen jabetzeko ere balio du, ze 25 urte pasa dira, eta jende askok ez daki zer pasa zen". Pako Etxeberrira forentse adituak 2017ko otsailean Urnietan bertan eskainitako hitzaldian zera adierazi zuen: "Zergatik ez hartu ahotan Gurutze Iantzi, hemen, Urnietan? Autopsiaren txostenean, markak ageri dira. Erabateko eskandalua izan zen 31 urteko emakume honekin gertatu zena. Zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta amorru handiagoa ematen dit".

"Baina muga asko daude, oraindik", Joseanek aitortzen duenez: "Begira polizia-biktimen legearekin ze muga jartzen ari diren... Guk gure senideekin zer gertatu zen jakitea eta onartzea nahi dugu, justizia, erreparazioa, baina oso mesfidatia naiz". Zergatik, bada? "Ba bi errealitate paralelo daudelako. Politika tartean ez dagoenean, sumatzen da halako aitortza bat, gauzak argitu eta aurrera egiteko gogo. Baina politika tartean sartzen denean, dena gelditzen da, dena da ñabardura, dena hau bai baina horrela ez..."

Urnietan zerbait gertatuko ote den itxaropenik ba ote dute? "Egoera berera bueltatzen gara", dio Joseanek. "Nahi dute zerbait egin, hala uste dut nik, baina berriro politika eta politikaren jokoa agertzen da. Ez dut uste gauza handirik lortuko dugunik. Ni beti prest nago, entzuteko. Ea zer nahi duten. Nik entzungo diet, eta erabakia hartuko dugu". Sinesgarritasuna emateko zer esan beharko luketen badakite: "zintzoak izatea, eta gure arrebazena torturen ondorioz hil zutela aitortzea, atxiloteta legez kanpokoa izan zela. Baina zalantzak ditut hala aitortuko dutenik, polemika handia piztu daitekeelako Urnietatik harago".

#### Alderaketa deserosoa

Gurutze Iantziren senideak, noski, biktima dira. Beste biktimekiko enpatiarik sentitzen ote dute?: "Ez da erraza, baina ez biktima horien samina ulertzen edo ezagutzen ez dugulako", dio Agustinek. "Biktima tratamenduak dena aldatzen du. Biktima batzuek onarpena eta erreparazioa daukate. Beste biktima batzuek ez, eta horrek enpatia zailtzen du". Eta Izaskun, azkena hiruretan: "Gurutzeren heriotza

## "ARREBA ERAIL ZUTEN, ETA HAN GERTATU ZENA EZ DA BUKATU ORAINDIK"

AGUSTIN IANTZI IGERATEGI

## "BIKTIMA BATZUK ARGIA IKUSI DUTEN BEZALA, GU ILUNPEAN GAUDE"

IZASKUN IANTZI IGERATEGI



Gurutze Iantzi. AIURRI

## Soslaia

1962ko maiatzaren 5ean jaioa, 1993ko irailaren 24an hil zen Gurutze Iantzi Tres Cantos komisaldegian inkomunikaturik zuten ziega batean. 31 urte zituen, beraz. Egape ikastolan lehen urteak egin eta gero, Presentacion de Maria ikastetxean egin zituen oinarrizko ikasketak. Etxeko egoera ekonomikoa zela eta, haurrak zaintzen hasi eta bitartean haur hezkuntza ikasten aritu zen. Haurrak oso gogoko zituen, eta ama izan nahi zuela argi dute senideek. Izaeraz irribarretsua, lagunarteko giroan ibiltzea oso gogoko zuen. Irakurzale amorratua ere bazen. Urteak aurrera militantzia politikoari ekin zion, eta Herri Batasunako hautes-zerrendan aurkeztu zen.

salatzerakoan tortura ez dela existitu leporatu izan zaigu, torturak salatzearena ETaren estrategia bat zela. Enpatia eduki? Jakina badugula. Iantzi Igerategitarrok badakigu kide bat galdu duten familia horiek sentitu dutena. Baina batzuk argia ikusi duten bezala, gu ilunpean gaude. Inpunitateak bere horretan dirau, alor askotan: poliziak, epaitegiek torturatzaileak libre uzten dituzte, forentseak... eta horrek halako hesi, muga bat sortzen du gugan. Baina enpatia eduki? Jakina baietz. Guk badakigu zer sentitu duten. Hori esanda nahikoa dela uste dut".

## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ZABALIK

ION BELOKI LA SALLE BERROZPE IKASTETXKO IRAKASLEA

## Koloretako itzulera

Irailak beti izan ohi du itzulera usaina. Atzean uzten ditugu udako gau eta egun luzeak eta errutinak bere besoetan hartzen gaitu. Ikasturte berriari buruz hitz egiteko garaia iristen da, helburu berrien garaia, lorpen edo nahi berrien garaia.

Ikasleen azal belztuak adierazten du aldaketa bat egon dela ikasleengan, euren aurpegi irrifartsuek adierazten dute indarberrituta etorri direla eskolara, ilusio eta proiektu ezberdinak esku artean dituztelarik.

Uda bukatzeak hurrengo mailara igarotzea esan nahi du eta horrek poza sorrarazten du ikasleengan, helduaro preziatura iristeko pausu bat gehiago ematera doazelako, horrek esan nahi duen guztiarekin: lagunekin egoteko aukera gehiago, etxekoen aldetik baimen gehiago etab.

Sarritan ikasleak ez dira konturatzen euren bizitzako momenturik ederrenak, agian, orain bizitzen ari direla; etorkizunera begira egote horrekin orainaldia erabat aprobetxatu gabe; eta horretaz jabetu daitezten ezinbestekoak gara, edo izan behar ginatete irakasleak.

Lehen egunean dakarten ilusio horri eustea da gure erronka nagusia. Horretarako gure ikasleei tresnarik egokienak eskura jartzea da egokiena. Eta ez gara liburuez, ordenagailuez edo arbelaz ari; gertutasuna eskaintzeaz, eurei entzuteaz eta eurekin batera aurrera egiteaz baizik.

Ikasturtea beti izan ohi da gorabeheratsua eta guztia ez da arrosa kolorekoa baina gure esku dago ikasturtea kolore ezberdinez margotzea. Ikasle bakoitza kolore eta izaera batekoa baita eta guztiek osa dezakete margolan zoragarri bat. Izan gaitezen euren bidelagun! Ikasturte on guztioi!

**LEHEN HEZKUNTZAN,  
LEHEN EGUNEAN  
DAKARTEN ILUSIOARI  
EUSTEA DA GURE  
ERRONKA NAGUSIA**

www.aiurri.eus

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



• Iritzia  
• Postontzia



POSTONTZIA

GURASOS

## Europara egindako bidaiaren balorazioa

Gure sorrerako manifestuan argi esan genuen moduan, gure seme alaben defentsan eta adostasunaren bidean behar den guztia egiteko prest gauden guraso talde bat gara. Bruselara, eta behar den beste edozein lekura heltzeko prest gaude gure haurrak babesteko. Ez dezala inor gutxietsi gurasoek beren seme-alabak defendatzeko duten indarra. Are gehiago gizarte baten babesa dutenean. Hor ditugu adibideak: Florentzian egin bai baina Mamen No Inceneritore taldeak gelditu duen erraustegia, Belfastkoa, Bidaia honek erakutsi digu ez gaudela bakarrik. Gero eta atxikipen gehiago eta anitzagoa ari gara jasotzen.

Bruselan hartu gaituztenek, seriotasun, errespetu eta miresmen handiarekin jaso bait dute gure ibilbidea. Gure arrazoiak eta argudioak oso sendoak direla garbi adierazi izan digute bilera gehienetan. Eta elkarlanean aritzeko European aliatu berriak lortu ditugu. Indartuta etorri gara handik.

Bruselara Gipuzkoako gehiengo sinkidalaren laguntzarekin joan ginen eta Europako gehiengo sindikalaren bases formal eta ezplizitoarekin bueltatu gara.

Babes politikoa ere zabaltzen ari da, gero eta kolore anitzagokoa ari da izaten interlokuzioa.

Honako egiaztapenak berretsi ditugu:

- Guk salaketa sartu genuen egun berean (ekainaren 7an), arrazoi berdinekin EBk Espainia Europako Justizia Auzitegiaren aurrean salatu zuen, hondakinen kudeaketa planak ez ebaluatu eta berrikusteagatik.
- Europako Kontuen Auzitegiak Espainia eta beste estatu batzuen elkarte publiko-pribatuenpeko kontratuen azterketa egin du (FCC eta Urbaser-i adjudikatutako obra kontzezioko kontratuen modukoak tartean), eta ondorioztatu du:
  - Kontratu hauek askoz garestiago ateratzen direla. Gure kasuan, 400.000.000 euro garestiago.
  - Kontratu hauek erabiltzen direla zorpetze mugei iruzurra egiteko.

\* Oharra: Erredakzioan jasotako oharrenen laburpena.

**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

**Aiurri eskuragarri:**  
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Umietan, 31 euro.  
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.  
**Maketzaileak:** Maddi Trutxuelo.  
**Kudeaketa, harpidetak:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus  
**Banatzailak:** Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Umietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ  
 ALJATUAK: ALJATUAK, nestorx  
 TOKIKOM  
 BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:  
 ANDOAINGO UDALA, Umietako Udala  
 DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:  
 EUSKO INFLUENTZIA GOBERNO VASCO, Gipuzkoako Foru Aldundia  
 ZIURTAGIA: Bitkarn  
 BABESLEAK: Gipuzkoako Foru Aldundia, Hildunzio Berlitasumerako Zuzendaritza  
 AIURRIKO HARPIDEDUNAK ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

## Bizkar eskola Urnietan, Saioa Audikanaren eskutik

Bizkarreko min edo patologiarekin bat duen ororentzat zuzendutako eskola da. Izen-ematea zabalik dago



Saioa Audikana irakaslea. AIURRI

### Amaia Senperena URNIETA

Bizkarreko min edo patologiarekin bat duen ororentzat zuzendutako eskola da. Saioa Audikana andoaindarrak fisioterapia zentroa du Andoainen bertan. Urnietako bizkar eskolako dinamizatzailerak lanetan arituko da bigarren urtez jarraian.

Saroben bizkarrari zuzendutako ariketak egiteaz gain, gorputzeko gihar eta artikulazio guztien oreka bilatu nahi dute. Saioaren hitzetan, ikasturtean zehar "ez dituzte beraien arazoak konponduko edo lesioak sendatuko, baina lesioak hobeto eramanen lagundu nahi diegu".

### Bizkar eskolaren onurak

Bizkar eskolak izan ditzakeen onuren gainean ere hitz egin du irakaslea. Malgutasuna da aipatu duen lehen hitza, lesioen ondorioz gaitasun gutxiagoko muskulazio

handiarekin etortzen baitira asko eta bertan egiten diren ariketek gaitasun gutxiagoko murrizten laguntzen baitute. Egiten dituzten ariketekin minak gutxitzea eta egunerokotasunean egiten diren ekintza ezberdinetan arinago sentitzea bilatu nahi dute.

Bizkar eskola Urnietan ez da berria: "Iaz talde batekin hasi ginen bizkar eskola ematen eta taldea anitzegia zela ikusirik, guztion onurarako taldea bitan banatu genuen. Talde batean ariketa gogorragoak egin genituen eta beste taldean ariketak egokitu egiten genituen. Aurten ere izena ematen dutenen arazoak arabera bi talde ezberdin egitea pentsatu dugu". Ate irekiera jardunaldira gerturatu ziren askok ikastaroan izena emateko interesa ere erakutsi zuten.

## Gazte Funky Urnietan, Ibone Zarzaren eskutik

Gaztetxoek tarte atsegina igarotzeko eta dantzan ikasteko ikastaroa da Gazte Funky izenekoa



Ibone Zarza irakaslea. AIURRI

### Amaia Senperena URNIETA

Ibone Zarza donostiarra duela bi urte 14 urteko gaztetxoekin Funky irakasle lanetan aritzen Saroben, eta aurten esperientzia errepikatzen dator.

Gazte Funky ikastaroaren dinamika gorputza lantzea eta egiten diren dantzen bidez ongi pasatzea da. Modan dauden abestiak hartu eta koreografiak landuz tarte atsegina igaro, kirola egin eta gorputza mugitzean datza.

Dantza egiteaz gain, joko ezberdinak ere egiten dituzte klaseak dinamikoagoak izan daitezkeen. Hala ere, Ibonek argi du zein den bere helburu nagusia: "Dantzatzea gustuko duten gaztetxoei Funky-az gozatzeko erakutsi nahi diet. Badakit ikastarora gerturatzen diren guztiak ez datozela motibazio berdinarekin, baina guztientzat baliagarri diren klaseak egiten saiatzen naiz".

Ikastaroan zehar dantza ezberdinak landu eta ikasitako guztiarekin ikasturte amaierako jaialdia osatzen dute. "Lau urterekin hasi nintzen eta haurrek, pixkanaka, nola ikasten duten ikustea eta gainera zu horren parte zarela sentitzea ikaragarria da".

### Tarte atsegina igarotzea, ezinbestekoa ikastaroan

Adinari dagokionez, zortzi urtetik hemezortzi urte bitarteko gazteek parte har dezakete ikastaroan. Gazte Funkyko saioetan ongi pasatzea ezinbestekoa da. Iboneren hitzetan, "primeran pasatzen dugu klasean, ondo pasatzera eta disfrutatzen gatzelako. Bakoitza bere buruarekin ondo sentitu eta bakoitzak bere erritmoa eramatera gatz".

## Eskaintza zabala

### Lekaio (943 00 80 33)

Helduak: Jokinza, puntu eta kakorratza, zur taila, eskulanak, marrazketa eta pintura.

Haurrak: Argazkilaritza, eskulanak, marrazketa eta pintura.

Izen emateko epea:

Irailak 28.

Hasiera: Urriak 11.

Info: Lekaio, Bertan (010).

### Sarobe (943 00 80 42)

Helduak: Yoga, pilates (aldaketa: asteartea-osteguna 15:00-16:00), gimnasia hipopresiboa, bizkar eskola.

Haur eta gazteak: Gazte Funky, balleta, sormen dantza.

Izen emateko epea:

Irailak 19.

Hasiera: Urriak 1.

Info: Sarobe, Bertan (010).

Antzerki tailerra:

Izen emateko epea:

Urriak 5.

Hasiera: Urriak 19.

Info: Sarobe, Bertan (010).

### Kiroldegia (943 00 83 28)

Spinning, tonifikazioa, 3. adina, zumba, fitness aholkularitza.

Hasiera: Irailak 17.

Info: Kiroldegia, Bertan (010).

**"Gerrateko ibilerak" Iñaki Alkain - Antonio Zavala**  
 Liburuaren aurkezpen ekitaldia

Hizlariak:  
 Pello Esnal, Xabier Andonegi  
 Irailak 25, asteartea  
 19:00. Urnietako Lekaio kultur etxea

Antolatzaileak:

**STOCK AZOKA**

Irailaren 15etik aurrera  
**GARDEN LORALDI**

Iparalde Bidea, z/g  
 ASTIGARRAGA

QUREAK



Buruntzako Joxi Telletxea, Edurne Telletxea, Alazne Intxauspe, Nahia Madinabeitia, Ainhoa Mangas, Mikel Jauregi, Jon Jauregi, Urtzi Nazabal eta Ismael Rodrigez. Erdian Ainhoa Aiertza, Julian Lopez Sorabillako Batzordekidearen eskutik saria jaso ondoren.

## Auzo guztiak garaile irten dira

Buruntza auzoko taldeak eskuratu zuen Andoaingo auzoen arteko herri kirolen ligako txapela. Giro aparta egon zen Sorabillan jokatu ziren proba ezberdinetan. Txapela Buruntzan geratu bada, auzoak eta oro har Andoain garaile irten dira

### Xabier Lasa ANDOAIN

Aurtengo Santakruzetan abiatu zen auzoen arteko ligaska, eta geroztik beste lau kirol saio gehiago antolatu dituzte Etxeberrieta jaietan, Goiburuko jaietan, Buruntzako jaietan eta Sorabillako jaietan. Bost taldeek proba ugarian neurtu dituzte indarrak: sega, harria jasotzen, txinga, ingudea, arrauna (ergometroa), pilota-txokotara eskuz eta palaz, gupila arrastaka, toka, zaku-karrera eta pirrinka. Proba guztiak amaituta, Buruntza auzoa izan da irabazlea, baina oro har auzo guztiak garaile ateraldiarekin Andoain herria irabazle izan da.

Zein izan da Buruntzako sekretua? Zehazki, Mikel eta Jon Jauregi anaiek erakutsitako abilezia eta indarra-segan zein harria jasotzen-. Liga irabazteko erabakiorrak izan dira.

### Aurtengo arrakasta ikusita, etorkizuna duen ekimena da

Ez dago zalantzarik arrakastatsua gertatu dela auzoen arteko herri kirolen liga. Lehenbiziko aldiz jokatu da aurtan, eta partaide-tzaren eta publikoaren aldetik jaso duen erantzuna ikusita, datorren urtean ere segida izango du txapelketak.

Erronka ez da nolana hikoia izango, lehia aurrera eramateko antolakuntza mailako hainbat alderdi hobetu beharko direlako. Halaber, jaiak antolatzen dituzten beste bi auzoak (Karrika eta Kaletxiki) lehiara batzeko saio-kera ere egin beharko da.

### Urte osoko sailkapena

Santa Krutz jaietan hasi eta Sorabillako jaietaraino, udaberrian hasi eta uda amaieraraino, bost desafio ezberdin antolatu dituzte. Tartean segan, harria jasotzen edota sokatiran aritu behar izan dute. Sorabillako proba amaituta, azken sailkapenaren berri eman zuten. Bistan da Buruntzakoak azken emaitzarekin pozarren agertu zirela:

1. Buruntza 56 puntu.
2. Santa Krutz 47 puntu.
3. Sorabilla 45 puntu.
3. Goiburu 45 puntu.
5. Etxeberrieta 31 puntu.

### Sorabillako jaietan azken proba



Etxeberrieta: Delan, Nika, Iñaki, Iker, Unai, Jon, Lurdes, Alba eta Luisa.



Goiburu: Jon, Estebe, Rober, Ander, Lierni, Miren, Ane, Beloki, Garazi, Imanol.



Santa Krutz: Aritz, Unai, Antton, Mikel, Aitor, Ianire, Amaia eta Ekaitz. AIURRI



Sorabilla: Andoni, Josu, Irati, Arkaitz, Koldo, Xabi, Mikel, Mateo, Julen. AIURRI





Sorabillako pilotalekuan azken sailkapenaren berri eman ostean, Buruntza taldeari irabazleari dagokion 500 euroko diru-saria eman zioten. Bukaeran partaide guztiek taldeko argazkia atera zuten. AIURRI

# Urnietako AEK Euskaltegia

Matrikula epea IRAILAREN 28ra arte

## ESKAINITZA ZABALA

- A1 eta A2 mailako taldeak astean 3 egun 2 orduz. Goiz, eguerdi eta arratsaldez.
- Azterketak prestatzeko taldeak: B1, B2, C1 eta C2. Astean 2 egun eta tutoretzak.
- Autoikaskuntza zerbitzua. Tutoretzak eta programazio pertsonalizatuak.
- Mintzalagun egitasmoa.

**Diru-laguntzak:** Udalarena %80ra arte

**aek** euskara  
praktikoa



Zu hemen  
zaude,  
AEK ere bai

## Euskara ikastaroak

**Informazio orokorra:**

Errekalde 1, tarteko oina.

**662 338 747 · urnieta@aek.eus**

# Aro bati amaiera eman diote Sorabillako jaietan

Jai Batzordeak jaien antolakuntza uzteko asmoa iragarri zuen zikiro afarian. Hamabost urte daramate lanean kide gehienek, eta nekea sentitzen dute jada



Eguraldia lagun, plazan egin ziren sagardo dastaketa eta kantu jira. AIURRI

## Erredakzioa ANDOAIN

Etorkizunari begira, indarrez eta ideia freskoak dituen jendea agertuko den itxaropena adierazi zuten, adierazpen berean.

Bereziki hunkigarria gertatu zen zikiro jatea. Antolaketa uzteko iragarpenaz gain, bi pertsona gogoan hartu baitzituzten; batetik, ekainaren 26an zendu zen Cesar Godoy auzotarra, jaietan kolaboratzaile fina izan ze-

lako. Eta bestetik, Julian Lopez; hamabost urte luzetan antolakuntza taldean dinamizatzaile nagusia izan delako. Eskerrak eman zizkioten horrexegatik. Adierazpenekin batera, oroigarri bana jaso zuten Godoyren familiak eta Julian Lopezek.

Bikaina izan da eguraldia, eta kale giroan ospatzeko moduko jaiak izan dira. Lehen egunean, Iturzaeta memorialeko palako

partidekin eta Araoz abesbatza- ren kontzertuarekin eman zieten hasiera jaiari, eta beti bezain arrakastatsua izaten den zikiro jatearekin amaitu zen eguna.

Larunbatean, korrikalariek Belkoango mendi lasterketan gorputza ondo astindu ostean, auzoko zaharrenak hamaiketako gozoan bildu ziren, Koruko Ama Birjinaren eguneko ohiturari jarraituz. Arratsaldetik aurrera, haur antzerkiak, sardina-jateak eta Alaiki taldearekin dantzaldiak auzoko plazara jende mordo erakarri zuen.

Igandean, azkenik, Joxe Mari Oartzabal musikariari eskainitako omenaldi ekitaldiak bete zuen goiza. Arratsaldean, berriz, auzoen arteko herri kirolen ligaren txanda heldu zen; aparteko ikusmina sortu zuen indar neurketak, eta lehia biziko lau proba ikusi ostean, bertaratu-tako guztiek sagardo dastaketa- rekin jai giroaz gozaten jarraitu zuten.

## GORA ETA BEHERA



### Omenaldia Julian Lopez nekaezinari

Ezustean harrapatu zuten, zikiro jatea amaitzen ari zenean. Cesar Godoy gogoan hartu eta gero, Jai Batzordeak omenalditxoa antolatu zion Julian Lopez. Erabat hunkituta agertu zen.



Igande eguerdian, meza ondorengo hamaiketakoan. AIURRI



Igande goizean Ezkio-Itsasoko Kizkitza ermitako erromerian parte hartu ondoren, argazkiko koadrila Sorabillako sardin jatera hurbildu zen. AIURRI



Eskopeteroak igande eguerdian auzoan barrena ibili ziren. AIURRI



Ate Irekien jardunaldia egin zuten Sorabillan Caritasek duen harrera-etxean. AIURRI



Andoni Etxezarreta andoaindarra eta Ane Zabala arrasatearra izan ziren azkarrenak XI. Belkoingo mendi krosean. AIURRI



Rakel-Alaine eta Loidi I-Amondarain Iturzaeta memorialeko errebantxan gailendu ziren Itxasne-Irati eta Eskudero I-Koldo bikoteen aurka. AIURRI



Zaloa Lopez de Munain eta Ana Belen Garcia andoaindarrak Araoz abesbatzako kide dira. AIURRI



## Cesar Godoy auzotarra gogoan hartu zuten

Ostiral gauean, zikiro jatean, aurtengo udan hil den Cesar Godoy Sorabillako auzotarra gogoan hartu zuten. Jai Batzordeak hark egindako lana nabarmentzeaz gain, haren etxekoei oroigarria oparitu zieten. Cesar

Godoyren alarguna Elvira, seme-alabak eta ilobak hurbildu ziren oroigarria jasotzera. Bertan zirenek txalo artean hartu eta agurtu zituzten. Laguntzeko beti prest zegoen pertsona zen Godoy.

## Oiartzabali omenaldia Sorabillan



Joxe Mari Oiartzabal, igande eguerdiko omenaldi ekitaldian. AIURRI

Joxe Mari Oiartzabal musikagilea omendu dute Sorabillako auzotarrek, aurtengo jaietan. Andoingo kultur ondareari eta bereziki musikagintzari eskaini dien eskuzabaltasuna gogoratu zuten sorabillatarrek igandean. Besteak beste, Andoain eta andoaindarrak gaitzat hartuta konposatu izan dituen makina bat musika pieza aipatu zituzten. Oiartzabalek, ekitaldira agertu ziren adiskide, sorabillatar eta musikari guztiei eskerrak eman ostean, Sorabillako auzoarekin betidanik eduki dituen loturak hartu zituen hizpide.

Aita ere musikaria izan zuen, eta hura ekarri zuen gogora lehenbizi. “Urtero festetara etortzen zen, musikarekin alaitasuna zabaltzera. Senideak zituen auzoan, Seroretxean bizi zen Maria Oiartzabal besteak beste, eta oso gustura egoten

zen bertan. Nik neuk ere oroitzapen sendoak dauzkat Sorabillarekin lotuta. Umetan, La Salleko ikastetxean txintxo portatzeagatik, irakasleek Sorabillara ekartzen gintuzten, futbolearen bertako belazean eta pilotan elizaren hormaren kontra jokatzeko. Urteak igaro ahala, Udal Musika Bandak eta dantzaldietako orkestrinak ekarri ninduten bertara, musikari bezala. Azken urtetan, berriz, musikarekin zerikusia duten ekitaldi askotan partaide izateko aukera eman didate jaiak. Gauzak horrela, Sorabilla beti egon da, eta egongo da nire bihotzean. Gora Sorabilla!”

Alberto Agirre eta Ozenki abesbatzek, Olagain txistularien elkartek, Urkiko dantza taldeak eta herriko elkartetako danbor joleek, Kale Txiki Bandarekin batera omenaldi ekitaldi dotorea osatu zuten.



Joxe Mari Oiartzabal etxekoekin batera. AIURRI



Urnietako futbol zelaiaren harmailetan atera zuten taldeko argazkia, eta ondoren, talde guztiak banan bana aurkeztu zituzten jokalariek banan bana aipatuz. AIURRI

# Denboraldi berrirako prest

Urnietako Kirol Elkarteko futbol atalak joan zen larunbatean egin zuen denboraldi berriko aurkezpen ekitaldia, ohiko duen ekitaldi polita antolatuz. Taldeak eta jokalariek banan bana aurkeztu zituzten, Egape dantza taldekoen saioa eta guzti

## Jon Ander Ubeda URNIETA

Denboraldi osoan zehar etxeko zelai izango duten tokian bertan egin zuten aurkezpen ekitaldia, talde izaera eta urnietar nortasuna indartzeko ekitaldi garrantzitsuan. Herritarren aurrean eta gainerako taldekideen artean, jokalariek guztiak protagonista bilakatu ziren. Banan bana izendatu eta taldeko argazkiak atera zituzten, denboraldiari hasiera formala emanez. Kluba eta herria indartzeko ez da ekimen hobegorik. Aurrerantzean, futbol eskolakoek eta gainerako bederatzi taldeek orduak eta orduak emango dituzte futbol zelaiaren inguruan.

Bederatzi taldeetatik hiru emakumezkoenak dira. Pozgarria da, gainera, jokalariek eta prestatzaileen artean emakumeen presentziak gorantz egiten direla ikustea.

## Egape dantza taldearen agurra

Ekitaldi dotorea izaten da, Andoingo Euskalduna klubean ikusten ez dena. Klubak, gainera, jokalariei denboraldia hasi aurretik esker ona eta gorazarrea egiten die Egape dantza taldeko

kideen saioarekin. Egoi Lizaso, Laura Caballero, Nora Agirre, Joana Caballero, Kimetz Cabanillas eta Estitxu Perez dantzari txikiak aritu ziren, futbol taldeen aurkezpen ekitaldiari dizdira gehiago emanez.



Lehen taldeak Euskalduna aurkari izango du etxean, larunbat honetan (18:45). AIURRI



Urnietarrak garaile izan ziren aurtengo edizioan. UKE

## Ricard-Begiristain memoriala

Denboraldiaren aurkezpen ekitaldian ez da emozioa inoiz falta izaten. Goizez jokatu zen Ricard-Begiristain memoriala, eta egun seinalatua zenez, euren senideei lore sorta bana eman zieten. Aitortza ekitaldia gozoa izan da aurten, Urnieta garaile izan baitzen.



Senior mailako nesken taldea. Igandean lagunarteko partida du, Fanderian. AIURRI



Senideek Euskalduna osatzen duten guztien omenaldia jaso zuten. Irudian jokalaria, zuzendaritzako kideak eta zuzendaritzako kide ohiak Huiziren senideekin batera. Txalo zaparrada jaso zuten. AIURRI

# Joxean Huizik merezi zuen

Euskaldunarentzat, eta Andoaingo futbol zaleentzat, Larramendi txapelketa denboraldiaren aurkezpen modukoa izan ohi da. Aurtengoa emozioz beterikoa izan da, uztailean zendu zen Joxean Huizi Ulangak eta bere senideek omenaldia jaso zutelako

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Hamar urtez SD Euskalduna klubeko lemazain izan zen Joxean Huizi Ulanga. Itzal handiko gizona, beraz, Ubitarte zelaian eta bulegoetan. Uztailean haren heriotzak saminez bete zuen Andoaingo futbol familia handia, albiste atsekabe handiz zabaldu baitzen atzoko eta gaurko futbol eragileen artean.

Larunbat arratsaldean, Larramendi txapelketaren finalaren atarian, Joxean Huizik ondo merezitako omenaldia jaso zuen. Aldageletatik futbol zelaira, harrobiko hainbat jokalaria gaztek ohorezko pasilloa osatu zuten. Bertatik igaro ziren, hurrenez hurren, finala jokatu zuten jokalaria eta Euskaldunaren historian aginte postuetan ibilitako hainbat kide. Guztiak zutik, harmailari begira, Ana Sanz alargunari eta Amaia eta

Jon seme-alabei harrera egiteko prest. Ubitarte futbol zelaira sartu zirenean txalo zaparrada jaso zuten. Erabat hunkituta zeuden, eta ez ziren bakarrak. Herrikide ugari zegoen emozioari eutsi ezinik. Opariak eta lore

sorta jaso eta gero, Ana Sanz alargunak keinu bidez esker ona adierazi zien harmailatan hurbildutako guztiei. Finalari hasiera eman zioten, segidan, bitzak aurrera darrai adieraziz bezala.



Lehendakari lanak utzi dituen Abregori eskertza adierazi zioten goizeko finalean.



Nesken mailako lehen taldea, finalaren atarian ateratako argazkian. AIURRI

## Nesken lehen parte-hartzea

Aurten, nesken eta mutilen mailako Larramendi txapelketa antolatu dute, berdintasunaren bidean urrats berria emanez. Goizean izan zen nesken arteko finala, Euskalduna eta Santo Tomas Lizeoaren artekoa. Historiarako geratuko da idatzita lehen edizioan etxeokoa nagusitu zirela, 5-1eko emaitzarekin.



Carrere alkatearen eskutik jaso zuten Larramendi txapelketaren kopa. UDALA

# HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 13

### ANDOAIN Dantza

Dantzaz konpainiak "Dantza potea" ikuskizuna eskainiko du herriko tabernetan.

19:00, herriko tabernak.

## OSTIRALA 14

### URNIETA Txapelketa

Denda Berri jubilatuen elkarteak antolatuta, txahal-masailak saltsan lehiaketa.

10:30, Denda Berri. 14:00, sariketa.

### ANDOAIN Dantzaz

Europako koreografo ospetsuena lau pieza ezberdin batuko dituen Growing Young ikuskizuna.

21:30, Bastero. 10 euro.

### ANDOAIN Erakusketa

"Euskara Andoainen: eten ez den soka" erakusketa.

19:00, Bastero. Irekiera ekitaldia.

### URNIETA Etxeberriko jaiak

18:30 Txupinazoa.

19:00 Pailazoak, pintxo-pote musikala.

## LARUNBATA 15

### ANDOAIN Eskubaloia

Denboraldi-aurreko mutilen txapelketa egun osoan zehar.

09:15, Allurralde.

### ANDOAIN Azoka

Plazaolako lehen artisautza azoka. Hainbat postu eta tailer.

10:00-14:00 / 16:00-19:00, Goikoplaza.

### URNIETA Etxeberriko jaiak

11:30 Ginkana.

13:30 Paella jatea. Bazkari herrikoia txartelak salgai irailaren 10era arte Biak eta Celtic's saltokietan.

16:00 Eskulanak.

17:00 Bingoa.

18:30 Karaokea.

20:00 Era askotako tortila lehiaketa.

21:30 Afari herrikoia. Bakoitzak berea eraman behar du.

22:30 Diskofesta: DJ Katxorro.



### ANDOAIN Erakusketa, euskara ardatz hartuta

"Euskara Andoainen: eten ez den soka" erakusketa Andoaingo euskararen ibilbide historikoa islatzen du. Helburua azaroaren 23tik aurrera egingo den Euskaraldia dinamika ezagutaraztea da.

Irailak 14, ostirala. 19:00, irekiera ekitaldia. Bastero

### URNIETA Eskubaloia

2018-2019 ikasturteko Urnieta Eskubaloiko taldeak aurkezteko festa ospatuko da. Aurrez hiruko torneo jokatu da Urnieta senior mailako bi taldeen eta Oñatiko Aloña Mendi taldearen artean, 18:00etan.

19:30, Kiroldegia.

### ALKIZA Kontzertua

Akordeoi laukoteak kontzertua eskainiko du Alkizako Urmara museoan. Itziar Aranberri, Susana Cencillo, Elisabet Gallo eta Gerezi Jauregi zuzenean arituko dira.

18:00, Urmara museoa. Dohainik.

## IGANDEA 16

### ANDOAIN Lasterketa

Leitzarano eta Plazaola bailarak zeharkatzen dituen lasterketaren edizio berria. Korrikalari edota ikusle modura parte hartzeko aukera polita da.

Maratoia Lekunberritik abiatuko da, eta maratoi erdia Leitzatik.

Helmuga, Goikoplaza.

### URNIETA Ibilgailuak

Auto klasikoaren ibilaldia, Xoxoka Motor Kirol Kluben eskutik.

12:00, Idiazabal kalea.

## OSTIRALA 21

### ANDOAIN Azoka

Bigarren eskuko azokan izena emateko azken eguna: 686 427 565. Azoka irailaren 29an izango da.

08:00-13:30, Arreta ordutegia.

### URNIETA Odol-emaileak

Odola emateko aukera berria.

18:30-20:30, Anbulatorio zaharra.

## LARUNBATA 22

### URNIETA Super H festa

Apar festa, pailazoak, jolasak...

10:30, I. Orientazio proba.

16:30, IV. Mendi lasterketa txikia.

### ANDOAIN Kalegiroan

'Consequences' dantza emanaldia.

18:00, Goikoplaza.

'Sagartuz' ikuskizuna. Oinkari, Hika.

19:00, Goikoplaza.

### URNIETA Sagardo lehiaketa

Euskal Herriko Sagardo Txapelketa herrikoia azken finalurrekoa. Dastaketa eta afaria.

Txartelak: sagardotegiak.com.

20:00, Batzokia.

## ZINEMA

### ANDOAIN

### BASTERO

### Mamma Mia!

### Una y otra vez

Larunbata, 15:

19:30; 22:00.

Ig., 16: 19:30.

Astelehena, 17:

19:30; 22:00.

### Hotel

### Transylvania 3:

### Unas vacaciones

### monstruosas

Larunbata, 15:

17:00.

Ig., 16: 17:00.

### El mejor verano

### de mi vida

Larunbata, 22:

19:30; 22:00.

Igandea, 23:

19:30.

Astelehena, 24:

19:30; 22:00.


### Los increíbles 2

Larunbata, 22:

17:00.

Igandea, 23:

17:00.



## SINOPSIAK



### Mamma Mia! Una y otra vez

Zuz.: Ol Parker. Herr.: Erresuma Batua (2018). Iraupena: 108 minutu. Hizkuntza: Gaztelania.

## 10 urteko atzera bidaiia

10 urteren ostean, pertsonaiak elkar nola ezagutu zuten ikusiko da bigarren filmean.

Sophieren egungo bizimodua nolako den ere ikusiko da. Bere bizia aldatu egingo da.

### Hotel transylvania 3: Unas vacaciones monstruosas

Zuz.: Genndy Tartakovsky. Herr.: Estatu Batuak (2018). Aktoreak: Adam Sandler, Andy Samberg, Selena Gomez... Iraupena: 90 min.

## Munstroen oporraldia itsas bidaiian

Munstroz osatutako familiak luxuzko itsas bidaiian igaroko du udako oporraldia. Ametsetako oporraldia izan

behar zuena amesgaizto bihurtzen da Drac Ericka izeneko itsasontziko kapitainaz maitemintzen denean.

**BEZEROAREN ASTEA ANDOAINEN**

**Animo!** Parte har ezazu!

2, 3 eta 5€ko sariak eta 50€ko 4 txartelen zozketa

IRAILA

								1	2
								8	9
10	11	12	13	14	15	16			
17	18	19	20	21	22	23			
24	25	26	27	28	29	30			

**OUTLET KALEAN**

IRAILAK 14

SALKIN

# Kultur jardueraz beteriko egitaraua Andoainen

Laura Landa da Andoaingo kultur teknikari berria, erretiroa hartu duen Garbiñe Agirre ordezkatzera datorrena. Agerraldi berean, udazkeneko eskaintza oparoa eta [www.bastero.eus](http://www.bastero.eus) webgune berria aurkeztu zituzten

## Olatz Lasa ANDOAIN

Andoaingo Udalak joan zen asteartean egin zuen Laura Landa kultur teknikari berriaren aurkezpen ekitaldia, Jon Zulueta Enplegu, Sustapen ekonomiko eta Gazteriako zinegotziaren eskutik. Andoainen lanean hasi aurretik, Landak kultur teknikari gisa Errenteriako Udalean jardun du zortzi urtez.

Agerraldi berean, udazkeneko kultur programazioa aurkeztu zuten, ostiralean Dantzaz zikloarekin abiatuko dena.

Erakusketei dagokionez, bi nabarmendu zituzten. Batetik, Euskaraldia ekimenaren baitan antolatutako "Euskara Andoainen: eten ez den soka"; ostiralean aurrera ikusgai egongo dena. Eta bestetik, Truchuelo argazkilaria andoaindarren argazki-funtsaren erakusketa, azaroaren amaieran.

Ekitaldi guztien artean, hurrei zuzenduriko bi proposamen aipagai zituen Zulueta, "Kontu



Laura Landa kultur teknikari berria eta Jon Zulueta zinegotzia. AIURRI

Kantari" edota "Euria" ikuskitzuna. Landak, berriz, Fritsch Company-ren "Mesa para Tr3s" ikuskizuna azpimarratu zuen. Horrez gain, sormen-idazketa eta kartoiari loturiko tailer berriak ere aipatu zituen.

## Webgune eta berria

Bloga izatetik webgunea izatera pasa da. Dagoeneko [www.bastero.eus](http://www.bastero.eus) gunean zinema eskaintza, kultur agenda, kale programazioa eta hezkuntza programak kontsulta daitezke.

## Artisautza azoka larunbat honetan

### Ordutegia:

10:00-14:00 / 16:00-19:00

"Bide Berdeak batzen gaitu" izenburupean, Goikoplazan Plazaolako lehenengo artisau azoka antolatu dute Andoaingo Udalak eta Plazaola Partzuergo Turistikoak, bi bailaratako artisauen laguntzarekin. Ia hogeita artisau eta ekoizle hurbilduko dira, oso eskaintza zabalarekin: zapatak, zurezko tresnak, ezta, gazta, bitxiak, taloak, jantziak, ukenduak eta kremak, makramea, ehun naturalak, etab. Guztiak eskuz egindakoak dira, eta osagai naturalekin.



Egur taila Goikoplazan, artxiboko irudian. AIURRI

### Txutxu trenaren goizean, Goikoplazatik Otiatarara

Goiz osoan zehar hainbat bidaia egingo dituzte Leitzarango Otiataraino. Bertan Plazaolako trenbide zaharraren inguruko historia kontatu eta gaur egungo Naturbidearen ibilbidea azalduko dute.

### Tailerrak eta jarduerak osagarriak arratsaldean, Goikoplazan

Haur eta helduentzat tailerrak eskainiko dituzte, ordubeteko iraupenekoak. Hain zuzen ere, hiru eskulan tailer egingo dira arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Andoaingo Goikoplazan:

- 16:00 Talo tailerra Leitzako talogileen eskutik.
- 17:00 Ilikeko zintak Fanny Alonsoren eskutik.
- 18:00 Ehunezko mantalak Telarista Urbanaren eskutik.

### Igande goizean, Plazaolako maratoia eta maratoi erdia

Udalaren eta Plazaolako partzuergoaren arteko lankidetzak sakonduz doa azken urteotan. Igandean Goikoplaza indarra hartzen ari den lasterketaren helmuga izango da. Batzuk Lekunberrietik iritsiko dira, maratoia osatuz. Eta beste batzuk, aldiz, Leitzatik, maratoi erdia osatuz.

**PLAZAOLAKO I. Artisanazoka**

BIDE BERDEAK BATZEN GAITU

**Tren Berdea Leitzarano**

10:00 eta 12:00 euskaraz  
11:00 eta 13:00 gaztelaniaz

Prebikak:  
0-3 urte: 0,00 / 4-15 urte: 1,0 / 16tik gorra: 2,0

Antolatzaileak:  
Andoaingo Udala, Plazaola Partzuergo Turistikoak eta bi zonaldeko artisauak

**Irailak 15, larunbata**

## Andoaingo Goikoplaza

10:00-14:00 / 16:00-19:00

**Artisau azoka:**  
Nafarroako eta Gipuzkoako Plazaola aldeko artisau eta ekoizleak. 20 postu

**Eskulan tailerrak:**  
16:00etatik aurrera (taloak, ilkeko zinta eta ehunezko mandalak)

**Animazioa:** Txutxu tren, musika, informazio turistiko, etab.

**PLAZAOLA NATUR BIDEKO MARATOIA**

## PLAZAOLA

NATUR BIDE BEREZIA ETA NORTASUN BEREZKOAREKIN

42K - 26K - V1A V3RD3 PL4Z40L4

2018KO IRAILAK 16

## LABURRAK



### Bezeroaren astea eta outleta Andoainen, asteburu honetan

Ikasturte hasierarekin batera, Salkin elkarteak merkataritza sustatzeko lanari berrekin dio. Egun hauetan bezeroaren astea ospatzen ari dira, igandera bitarte luzatuko dena. 2, 3 eta 5 euroko sariak lor daitezke erosketa ezberdinetan eta baita 50 euroko 4 erosketa txartel ere.

Bezeroaren astearekin batera, ostiral honetan outleta iragarri dute hainbat merkatalguneen atarietan.

### Urnieta-Euskalduna Preferente mailako partida larunbatean

Urnieta eta Andoain bi herrietako lehen futbol taldeek elkarren aurka jokatuz ekingo diote 2018-2019ko Ligari. Larunbatean abiatuko da liga bi taldeentzat Urnieta futbol zelaian, 18:45etan hasita. Pixkanaka, talde guztiak sartuko dira lehian.

## AZKENA



Guraso eskolak han eta hemen indartzen ari dira, gurasoen hezitzaile papera aberasteko asmoz. EXTRAESCOLARESGENIALES

## Haur eta nerabeen guraso eskola, abiatzear Urnietan

Guraso eskolaren bitartez aitak eta amak hezitzaile modura duten garrantzia indartu nahi dute. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago. Eskola hilean behin bilduko da, gurasoen haurren adinaren arabera sailkatuta

#### Erredakzioa URNIETA

Jakinmina asetzeko edo eguneroko kezka arintzeko, guraso eskola aukera interesgarria da. Haur eta gazte sasoioko heziketa garrantzia handikoa da. Udalak sustatuta, gurasoek izan ditzaketen kezka eta galderei erantzuteko Guraso eskolaren edizio berria martxan jarri dute. Gurasoek hezitzaile modura duten

paper garrantzitsuaz ohartarazi nahi dute ikastaroen sustatzaileek: "Gurasoen hezitzaile papera indartu nahi da, haien seme-alaben heziketari eta garapenari buruzko hausnarketa eta analisi pertsonala eginez. Landuko diren gaiak lotura izango dute adin ezberdinetako seme-alaben ezaugarriekin; heziketarako joerak eta jarraibideak,

maitasuna, komunikazioa, garapenaren estimulazioa eta gaztaren bideraketak, guraso bezala haien buruaz duten pertzepzioa nola hobetu, haien gaitasunetan duten konfiantza areagotu, eta eguneroko estresa bideratzeko baliabideak handitu, besteak beste". Adinaren arabera sailkatuta, gurasoek hilean behin bilduko dira.

### Izena emateko aukera zabalik dago

#### Ikasturtea:

- 2018ko urritik 2019ko maiatzera bitarte.

#### Taldeak:

- 0-6 urteko haurren gurasoak: Astelehena, hilean behin. 14:30-16:00.
- 7-11 urteko haurren gurasoak: Asteartea, hilean behin. 17:30-19:30.
- 12-14 urteko haurren gurasoak: Asteazkena, hilean behin. 18:00-20:00.
- 15-16 urteko haurren gurasoak: Asteazkena, hilean behin. 18:00-20:00.

#### Matrikula:

- 25 euro guraso bakarra, 40 euro bikotea.

#### Ludoteka:

- 5-11 urte bitarteko haurrentzat. Izen-emate orrialdean zehaztu beharra dago.

#### Izena emateko epea:

- Urriaren 10a.

#### Izena emateko tokiak:

- Urnieta ikastetxeak.
- Bertan.
- Gazte Informazio Puntua (Idiazabal 13, behe).
- Urnieta.eus.

#### Oharra:

- Lehenetsuna urnietarrek dute. Lekurik badago, Andoaingo gurasoek izena eman dezakete.

# GURASO ESKOLA

0-16 urte bitarteko seme-alaben gurasoentzako

Adintarteko taldeak eta ordutegiak: urritik maiatzera saio bat hilean		
0 - 6:	astelehena	14:30 - 16:00
7 - 11:	asteartea	17:30 - 19:30
12 - 14:	asteazkena	18:00 - 20:00
15 - 16:	asteazkena	18:00 - 20:00

**Matrikula:** banakakoa 25 € - bikoteak 40 €

**Ludoteka zerbitzua:** 5-11 urte bitarteko haurrentzat, betiere, izen-emate orrian beharra adieraziz.

**Izena emateko datak eta lekuak: irailaren 10etik urriak 10era**

- Urnieta ikastetxeak (seme-alabek Urnietan ikasten badute)
- Bertan - Herritarren Udal Arreta Zerbitzua (udalekua)
- Gazte Informazio Puntua (Idiazabal 13)
- Urnieta Udalaren webgunean online